

6 mantangorri



AZOKA

LIBRUAK

Izenburuak: 'lufi, mutikoa naiz!' eta 'lufi, neskatoa naiz'.**Testua eta marrazkiak:** Liesbet Slegers.**Itzulpeta:** Leire Mendizabal.**Orrialde kopurua:** 56na orrialde,**koloretan.** **Argitaletxea:** Ibaizabal.

Eukene Herrera

IBAIZBAL ARGITALETXEKO LITERATURA SAILEKO ARDURADUNA

«Gurasoek eta haurrak elkarrekin tarte góxo bat pasatzeko liburua da»

Haur baten jaiotza beti da berri pozgarria. Une oso berezia da, gogoangarria. Gerora, haurra handitzen denean, hamaika bider gogoratzen diren uneak dira: haurdunaldiko bederatzi hilabeteak, jaiotzaren unea, lehen argazkiak, lehen hitzak, emandako lehen urratsak... Datu pila dira, argazkiak mila. Amaren sabelean da-goen unetik urtebete egiten duen arte haurraren lehen urtebete eta bederatzi hilabeteko bizitzan bereziak diren datu horiek guztiak jasotzeko liburuak dira *lufi, mutikoa naiz eta lufi, neskatoa naiz*.

Liburu bat baino zerbait gehiago da liburua, ezta?

Oso liburu berezia da, bai. Azken batean, eguneroko moduko liburu bat da; haurra amaren sabelean dagoenetik lehen urtebete bete-

tzen duen arteko bizitza kontatzen da. Bizitzako lehen urtebete eta bederatzi hilabeteetan jazo-tzen diren une gogoangarriak biltzen dira. Liburu berezia, pertsonala eta bakarra da, haur bakoitzaren liburua ezberdina izango baita, hots, ez dira bi liburu berdin egingo; azken batean, haurraren bizi-tza kontatzen duen liburua delako. Gerora haurrei maiz gogoraraztea gustatzen zaizkien bizitzako uneak, pasarteak eta datuak biltzen dira: asteko zein egunetan jaioren, zein eguraldi egiten zuen, nolakoa izan zen jaiotza, zer ordu zen, zenbat pisatu zuen... Bizitza berri baten aurrean zer-nolako maitasuna eta poza sentitzen diren islatzeko modu ederra da. Hori guztia jasotzeko aukera izango du irakurleak, liburu horien bidez. Liburua osatu bitartean gozatu egingo dute guraso zein haurrek, eta, on-

doren, etxeko apaletan leku berezia izango du liburu honek.

Zein datu jasotzen dira?

Haurdunalditik hasten da kontaketa, eta aldi hartakoak dira lehen datuak: bizitza berri bat zetorrela jakitean, gurasoek zer sentitu edo esan zuten; lehen ekografia; amaren sabelean zela astez astez haurraren pisua eta neurria... Ondoren, jaiotzaren uneko informazioa dator: jaioberriaren lehen argazkia eta datuak –jaiotze ordua, pisua, luzera...–; gurasoek nola erreakzionatu zuten... Jarraian, urtebete egin arte bizitzako beste hainbat esperientzia gogoratzeko hutsuneak daude: argazkiak itsasteko lekuak; haurraren gogoko jostailuak zehazteko tarteak; argazki, txartel eta ohar ahaztezinak itsasteko orrialdeak... Batzuetan galdera zuzenak egiten dira, eta, beste batzuetan, irakurleak berak bere esperientziak, marrazkiak, sentsa-

zioak, argazkiak itsasteko eta kontatzeko atalak daude. Datu batzuk objektiboak dira, beraz, baina badaude sentimenduak adierazteko tarteak ere.

Liburu ikusgarria da.

Orain arte guraso askok egin duten bilduma izango da hau, baina guk liburu formatua eman diogu. Nahi-ko modu erakargarrian aurkeztu dugu liburua: tamaina handia du, formatu ikusgarria, azal leuna, orrialde koloretsuak, elementu mordoa, marrazki ikusgarriak... Be-gizta bat ere badu liburuak, korapi-loa egin eta material guztia liburu barruan txukun-txukun gordeta gera dadin. Berez, bi liburu argitaratu ditugu, baina berez liburuak berdinak dira. Alde bakarra: haurra mutikoa izan edo neska izan.

Opari liburu bat da, ezta?

Haurrak garrantzitsuak direla eta maitatuak direla sentitza oso garrantzitsua da. Liburu hau maitasun proba bat da. Azken finean, haurra jaioko dela jakiten den uentik gurasoek sentitzen duten maitasun eta ilusio horren isla da liburua, eta haurrak zein maitatuak diren eta zein garrantzitsuak diren erakusten du. Gurasoek haien seme edo alabari bere bizitzaren zati bati buruz egindako liburu berezia da; opari bat, azken batean.

Haurrentzako ez ezik, guraso berrientzako liburua ere bada, ezta?

Bai, egia esan, hasiera batean gurasoak izango dira liburuarekin gehien disfrutatuko dutenak: hutsuneak betetzen, argazkiak itsasten, datuak betetzen... Handik urte batzuetara, baina, haurra izango da liburuarekin gozatuko duena. Haurrak handitzen diren heinean,

euren buruari egingo dizkioten galdera ugarien erantzunak izango dituzte libruan. Haurra kox-kortzen denean, hainbat eta hainbatetan gurasoek eta haurrak elkarrekin irakurtze-ko, ikusteko eta tarte góxo bat pasatzeko liburua da.

